

BALENDIN ENBEITA

BERTSOPAPER-LEHIAKETA

XIII. EDIZIOA

BERTSO SORTA SARITUAK

Mendipe baten dago
Uspitxa Jauregi,
nere txikitxutako
jolasen lantegi.
Pozik egingo neukez
idazten urte bi,
zenbat maite zaitudan
azaldu banegi!

Balendin Enbeita

Guztia ahantzi baino lehen

Doinua: *Baneza eta banitu*

1

Bata txurien aztarna,
anbulantzien alarma...
Pasillo grisetan barna
iritsi naiz zuregana
Ospitaleko gelan sartuta...
*“Zeinen guapa zauden, Ama!
Zeinen dotore jantzi zaituzten,
hartu bi muxu, laztana”*
Baina espantuz begiratu dit,
hau da Alzheimerren drama:
beti burutan ninduen horrek
erabat ahantzi izana! (bis)

3

Deskuidurako aztura,
alderantzizko jantztura,
kaosa, kezka, laztura...
Zein mingarri den ahanztura!
*“Despiste hauek arruntak ote?
Amak zeozer al du ba?”*
Hainbertze zantzu, hainbertze lorratz...
Ze beldurra, ze tristura!
Esperantzara kondenatuta
joan ginen medikura
Han entzun nuen inoiz ahantziko
ez dudan diagnosi hura (bis)

5

Ta gogor jotzen bazaitu
aurrera nola jarraitu?
Begiak malkotan blaitu
gaitzak mina lagun baitu
Ama jipoitzen duen edozerk
semea ere jipoitu,
Alzheimerren arrazoiekin
ezin baita arrazoitu
Muturrak horren gustuko ditun
bizitzara nola ohitu?
Batzuek dena ahantzi nahi eta
bertzeek ezin oroitu (bis)

2

Pasa da urte tropela
ama gaixo dagoela
Giza suntsipen motela,
emozioen koktela
Hamabi uda, hamabi negu
dozenarako kandela!
Zeinek espero zezakeen gaitza
ataizean zebilela?
Hiltzaile ixil, ailegatzen da
lapur bat gauez bezela,
unea bizi gabe, gerora
itsu begira zaudela (bis)

4

Labankada baten bortxa
bizi epaile zorrotza
Hil-kanpaien arrabotsa
datorrenaren aitortza
Alzheimerren da dikotomia
ulergaitzen paradoxa,
maite duzuna bihurtzen baitu
hain hurbila, hain arrotza
Infernuaren berotasuna,
giza gorpuzkien hotza
Txikitzen ditu gaixoan sena
ta gertukoaren bihotza (bis)

6

Amorruaren esklabo
denbora nuen igaro,
arranguretan oparo
ta abaildurik zeharo
Sentitzen nintzen ozeanorik
bortitzeneko naufrago
(ez duzulako sarri ikusten
zure minetik harago)
Baina gaixoa ama denean
etsitzerik ez itxaro!
Gaitz sendaezinak egonagatik
zaindu ezinik ez dago (bis)

XIII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Ta zaintza horretan itsu
murgildu nintzen eztitsu
Egun ta arrats berdintsu,
ezinaren kontrapisu
Nahiz zoritxarrez ez den bihurtu
infernua paradisu,
une latzetan ikasten da zer
den benetan garrantzitsu
Zure botika bakarra da ta
maitatzea dagokizu
Herio ez du saihesten baina
bizitzen laguntzen dizu (bis)

9

Desagertu zen antsia,
sufrirentu erantsia,
urteekin erantzia
Super heroien jantzia
Fidagaitz hartu ohi nauen arren
ta guztiz naukan ahantzia,
miresmen bide bilakatu zait
gaitzaren zirkunstantzia
Sentimenduek laburtu dute
oroimenen distantzia
Gutxiesterik ba ote dago
muxu baten garrantzia? (bis)

11

Gosaltzen hasi baino lehen
edo siestaren ondoren
amarekin hainbat oren
Nire esker on ta omen
Nahiz sarri entzun *“alferrik hoa,
ez dik ez sen, ez oroimen”*
nire bizitzan momentuoro
ama beti hor zegoen
Ta ni ere hor edukiko nau,
berdin zait nola dagoen!
Berak ez daki nor naizen baina
nik badakit bera nor den (bis)

8

Gaixotasuna galzori,
oroitzapenen hilobi
Ikara ta min istori
Nola ez ziplo erori?
Mamuak aldiz, artekak ditu
ta ahanzten zaio askori
Maitasunaren esplikazio,
sentimenduen teori
Memoriak lo hartu dezake
ta ez gogoratu ongi
baina bihotzak ez du ahantziko
behin sentitu zuen hori (bis)

10

Azken astetan gainbehera
itsustu zaigu afera
Etxetik ospitalera
Heldu al da amaiera?
Baina goizero ondoan nauka
irrifar batez gainera,
ahal den goxoen irakurtzeko
bezperako ipuin bera
Ziurra bada sufrimendua
ziurra bada galera,
ilusioen bidetik soilik
egin daiteke aurrera (bis)

Amak zortzi abadaki

Doinua: *Harrotasunik bada*

1

Amak zortzi adabaki
zeuzkan mantalean
anai-arrebak ginen
bere magalean
magrebtarrok meka bat
dugu iparraldean
gazterik hasi ginen
gu haren galdean
zurien aldean
morroi, normalean
marroi bat naiz halere
mundu zabalean
jarri al zara inoiz
nire azalean?

3

Kartel koloretsuak
moreak, gorriak...
aniztasun egarriz
hormak, eskuorriak...
esanaz: "garrantzirik
ez dik jatorriak
ta beraz errespetu
osoa zor diat"
hango lugorriak
ta tripazorriak!
Beharrik gorrienak
erruz igorriak
benetan ote gara
ongi etorriak?

2

Sortu nintzen lurretik
bota egin naute
zeuenean kabitu
izan bazinate...
sosaren legeetan
gatibu gauzkate
inperio honetan
nor da egun, uharte?
Lurraren bi parte
tarte bitarte
dezente zegoenez
artean, aparte
jendarte berdiner
jausi ginen arte.

4

Immigrante batentzat
deus ez denez mauka
ametsgaiztoak egin
izan ditut gauka
gaur pasa zait ederra!
Gizon batek: "aupa
hi ez haiz hemengoa!"
-altxean bi mauka-
begiz jota nauka
lanik ez ei dauka
hor hasi zait faxista
marmatia zaunka
akenaurrekoa da
azkenaren aurka.

XIII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5

Teilatua nahi bada
aztertu benetan
erreparatu behar
zaio itukinetan
indarrak hustu arren
basa zikinetan
arantzatsuak gara
zuen jardinetan
behar ziztrinetan
gabiltz izkinetan
amorru biziaren
lur irakinetan
azterka ari gara
soberakinetan.

7

Korporazio handi eta
goi-bulego
esku-igurzten ariko
dira honezkero
arraza menperatu
kultura, genero...
suminduran batzeko
modurik balego...
Itsu gara gero!
Izua da, edo?
Kalean gurutzatu
arren egunero
kontrako espaloitik
ahal dugunero.

6

Irauteko aski ez
denean jornala
gizakiak ez, lanak
behar luke ilegala
kontainerren artean
bila gabiltzala
bekokian zimurtzen
zaizue azala
moral zerbitzala
Europar zetzala?
Begirazuna zein den
epaile zitala!
Plazerez arituko
bagina bezala...

8

Sukaldeetaraino
aspaldi iritsia
da gehienok berdintzen
gaituen krisia
soziala izango
bada justizia
kontuan har ezazu
nire iritzia
ez da gutizia
tori primizia:
zurekin gorpuztu nahi
nuker -premier ia-
eskuzabaltasunez
ukabil itxia.

Bisitarik ez

Doinua: *Kantuz sortu naiz eta*

1

Gorroto ditut musu
faltsuen epikak,
zotz, ahozapi eta
baxera politikak,
olibak, pistatxoak,
arto eta pipak,
ezkutatu beharra
pizamaren pintak...
eta gorrotoago
inoren bisitak.

3

Marga etorri ohi da
ni amargatzera,
Marta martitzenetan
martirizatzeraz;
Doloresek uzten nau
dolorez, minbera,
eta Hilariok hil
ez banau sobera,
Erramun azaltzen da
errematatzeraz.

5

Din-don, din-don, din-don, din...
"Hautsiko balute!"
Ezkutatzen naiz, baina
atzematen naute:
-"Kaixo, kaixo! Sorpresa!
Sartu nahi genuke..."
-"Noski, sartu! Hau poza!
Jada zenbat urte!?"
...eta egia dela
sinistuko dute.

2

Telebista ikusten
depilatu gabe,
txirrina jotzen dute
tiro baten pare,
atera joan eta
txaplata bi daude.
"Sar gaitzeken?" egiten
dutenean galde,
"Bale!" esaten duzu,
esan nahian "Alde!"

4

Filmak mozten dituzte
une gorenean,
beti agertuz behar
ez den orenean,
loaldien bezperan,
ez ondorenean...
Berba egiten dute
tonu ozenean
eta esertzen dira
sofa onenean.

6

Zabaldu bezain laster
etxeke atea,
zilegi da denei
jaten ematea:
lagunek birrak eta
Ruffles paketea,
izekoentzat, aldiz,
pastak eta tea...
Antza, ahazten zaie
etxean jatea.

XIII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Ez partxisak, ez kartak,
ez eta bingoak,
etxe honek ez ditu
halako jokoak.
Sartzen utzi baino lehen
nire auzokoak,
haien txakurrak edo
neska-mutikoak,
nahiago ditut liztor
asiatikoak.

9

Alfonbra zikin uzten
duten iratxoak,
komuna okupatzen
duten gaztetxoak,
presarik ez daukaten
osaba kotxoak,
eukalipto usaina
daukaten atsoak...
Txano gorritz jantzita
datozen otsoak.

11

Amaituta ardoa
eta moskatela,
platerrak garbituta,
janez, ez bestela...
Azkenik, atarian
joatear daudela,
esan ohi dute laster
berriz datozela...
eta okerrena da
egingo dutela.

8

Ez dut nahi etortzea
jenderik etxera,
izan nahi dut gaiztoen
tratamendu bera,
goikoak topatzean
eskaileran behera,
umeez egitea
amari galdera:
“Hor bizi den atsoa
sorgina ote da?”

10

Ez dut nahi bisitarik,
ez ditut gustuko;
ez dut izozkailua
debalde hustuko.
Ez al naute guztiek
betiko ahaztuko!
Koinatu, amabitxi
edo lagun urko!
Atea ez dut berriz
inoiz zabalduko!

Memoria in memoriam

Doinua: Nere gorputza dardarka daukat

1

Horren gordina izan liteke
atzoetan miatzea,
xahutu arte ustiatuaz
sentimendu mehatzea.
Baina hobe da mina jasanez,
ezer ere ez galtzea;
berriro aurrez ikuskatzea
sikira, zure atzea.
Orain urteak ahaztu zenuen
ahantz hitzaren hatxea.
Alzheimerraren iltzea;
ohartu gabe hiltzea.
Komenigarri suertatu zaizu
requiema behingoz heltzea,
aspaldi baitzen aitarik gabe
gure aitaren etxea.

3

Intsentsu eta otoitz artean
egin genizun agurra;
dolu garaia ez da ordea,
espero bezain laburra.
Notaritzara joan behar orain,
zein egoera txakurra!
Herentziaren partearen zain
bat sentitzen da lapurra:
hitzez hartzean, hark izerdiaz
pilatu zuen apurra.
Nahiz ez darien adurra,
guztia dugu gezurra;
zifra zein izen dantza honetan
soilik zerbait da ziurra;
ezer izan ez eta halere
zerbait galtzeko beldurra.

2

Gizon zaildua, laurogeirako
Jaenetik etorria,
meatzari lez, etxetzat hartuz
Gallartako harrobia.
Burdin ugari eskutan baina
etxean urri ogia,
luzaz mantentzen saiatu arren,
sasoi bateko loria,
ostatu berri bihurtu zaizu
zipres arteko hobia.
Zein krudela den zoria!
Heldu behar hilzoria...
Itxura baten nahiz galtzear den
aita, zure historia,
existitzen den irakaslerik
onena da memoria.

4

Etika bezain indartsua da
jakinguraren antsia,
herentziaren Pandora kaxa
hobe legoke itxia.
Baina irrikek eraldarazi
ohi dutenez iritzia,
aita zenaren mandamentuen
garaia da iritsia.
Besteak beste, bolaluma bat
izan zait niri utzia.
Hark lortutako gutxia,
jada izan da hautsia.
Era soil batez gaindi liteke
galera honen auzia:
luma honekin izkiriatur
hark ahaztu zuen guzia.

XIII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5

Haurtzaro latza Jaen aldeko
haurrari zegokiona;
kazike eta señoitoek
pozoitu zuten lur ona.
Nomaden gisan bizi zineten,
lan eskean, hara-hona,
zortzi bete ez eta bildurik
hainbeste oliba tona.
Nahiz tristezia sarri bihurtu
miseriaren sintoma,
hain heldutasun sakona
zen haur hari zeriona.
Lezio bat lez gogoratzen dut
ahots goxoz zeniona:
“espero ez den toki haietan
aurkitzen da zoriona.”

7

Zerbaitengatik Jaenen baino
Gurutzetan jaio nintzen,
emigratzeak garai haietan
ez zuen inor harritzen,
eta honaino iritsi zinen,
garai onak hel zitezen.
Harremanetan nahiz betidanik
izan zenuen aski sen,
lehen egunetan zenbat iseka,
begirada txar, goitizen:
“Segi gora, urde gizen!”
agintzen zizuten ozen.
Salbatzaile bat heldu zen baina,
Periko jauna, hain zuzen.
Hari eskerrak arrotasuna,
harrotasun bihurtu zen.

6

Ez libururik, ez maistra bat,
ez ikasteko aukera;
ezin baloiaz plazan jolastu,
ez elizatik atera;
ezin garaiko nerabeek lez
tabernan hustu kartera;
ezin barneko garrak itzali
Lorcaren hitzez batera.
Zurekin ezer izan ez arren,
bizi behar zen topera.
Nahiz garaiko egoera,
joan zitekeen hobera.
Harrez geroztik aldatu ziren,
zu zein zure pentsakera;
gabeziarik gabezia ere
gabezia ez ote da?

8

Arren arteko hoztasunaz gain
zerbaitek zintuen estu:
Perikorekin aritzen zinen
piketean, eskuz-esku.
Borondateak ez zintuenez
tiro hartatik babestu,
amodioa ailegatzeaz,
kaotiko bezain prestu,
beltza kolorez jantzi zitzaizun
eta kolorea belztu.
Sentimenen manifestu,
zenbat malko, arnasestu.
Nahiz perfektua dirudiena
soilik daitekeen eskastu,
orduz geroztik amak eta zuk
ez zenuten elkar ahaztu.

XIII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

9

Eternala zen emakume hark,
espero gabe, beihala,
hiru piezako puzzlea hautsiz
alde egin zigun hala.
Zenbat erregu, zenbat jainkori:
“Faborez, Jehova, Ala!”.
Dekadentziak jaten gintuen
uneak joan ahala
are gehiago okertu baitzen
zure osasun petrala.
Alzheimerrak arrakala
zabaldurik, balaz-bala,
ahal duenak halako zerbait
inoiz bizi ez dezala;
haur bat zaintzea, haur hark berak zu
zain zaitzan haur bat bezala.

10

Zenbat lezio jaso nituen,
anekdotaz anekdota.
Nahiz eta inork inori ez dion
diagnosi hura opa,
disfrutatzeke zen une oro
ezin zen alferrik bota,
bizitza guztiz aldatu zigun
hura baigenuen topa;
patu berbera daukagu denok,
diskretu bezain despota.
Nahiz heriotzak oztopa,
aita, egin daigun topa!
Azken finean dena ez al da,
garaipen edo porrota,
gainontzekoek gu oroitzeko
etengabeko borroka?

Jazarpena

1

Erasotzailea:

Lurrean dago gaurkoan ere
ezin bertatik altxatu
begiratu ta zera esan dit
“mesedez ez ni akatu”
erruki gabe erantzun diot
“ez dut zurekin bukatu”
hasi besterik ez gara egin
oraindik ez naiz nekatu.

3

Erasotzailea:

Odol usaina, adrenalina
sentsaziorik onenak
lagunak eta ikaskideak
begira ditugu denak
isilik daude mugitu gabe
beldur dira ta gehienak
hau egitean ahazten ditut
nire minak eta penak.

5

Erasotzailea:

Ba ni etxean ez nabil ongi
horretan ez naiz zorteko
ez dudalako familiarik
maitasuna emateko
ama hilik ta aita mozkorra
bizitza oztopatzeko
besteak txarto ikusten ditut
ta sentitzen naiz hobeto

2

Biktima:

Beti bezala hemen nago ni
txotxongilo baten gisa
ukabilkada ta ostikoak
sufrimenduaren giltza
errazagoa izan liteke
indartsuago banintza
ahulenari min egitea
ote da bere bizitza.

4

Biktima:

“Zergatik niri?” galdetzen dut maiz
erantzunik ezin hartu
patua dela pentsatzen dut nik
ezin dela kontrolatu
mehatxatuta nago ta beraz
ezin babesik eskatu
agian ni naiz erruduna ta
inoiz ez naiz konturatu.

6

Biktima:

Erabaki bat hartu dut eta
ez dut egingo atzera
institutua aldatu eta
bizitza berriz hastera
psikologo ta gurasoekin
aterako naiz aurrera
ez da berandu zerotik hasi
ta gozatzeko topera..

Pentsio duin batzuegatik

Doinua: *Beste bateko inularretan*

1

Ez zuek noski ez dezutenez
inor horrela gertuko
ez dakitela gas ta argia
nola duten ordainduko
aurrezteko ere dabilzate
apaño, arreglo ta truko
zerbait larria gertatu arte
ez altzerate moituko

3

Kalefakzio gabe dabilza
pentsionista asko jada
gas ta argien fakturarekin
ze nolako kolpekada
behin ta berriro kalera irten
ta honaino heldu gara
pentsio duin batzuegatik
bururatu behar al da?

5

kasualidadez boteretsuek
galdu ohi dute burua
ez daukat garbi Europa denik
horren toki segurua
eta batzuen lukrazioa
izanikan helburua
kontaiguzue lehenik eta behin
non dagon gure dirua

7

Ze uste dute politikoek
horren ergelak garela
ez al dakite lapur usaina
urruti nabari dela
nere ustetan soluzioa
ez da inola kartzela
pentsio kutxa ustu dutenek
berriz bete dezatela

2

Jubilatuak jo ta ke daude
kaletatikan zarraparra
ta lapur zikin horiek berriz
jo nahian guri adarra
pena_ematendu aitona-amonek
jantzi beharra txamarra
Beharrezkoa al da beraiek
kalera irten beharra

4

Nola ordaindu nola ordaindu
inpuesto joko itzela
kafe pare bat igo ostean
hiru jaisten dituztela
prezioekin ere dakigu
jokoan dabilzate
inpuestoak utzi eta ordaindu
ordaindu ber den bezela

6

Langile gutxi homen dago ta
hasi zaizkigu aibala
aitona-amonek bitartez bizi
behar dute nola-hala
nahiz uste dudan lanen sorkuntza
hauen soldatan doala
dirudienez zerbait ez doa
beharko zuen bezala

8

Ados jartzeko kapazidade
faltaz gu gera testigu
nahiz ta jokoan jartzen dituzten
gure etxe eta diru
berdin dutenez lau jubilatuk
hauteskundeak be hiru
eta guzti hau herritarrori
zeinek ordainduko digu

LAU LETRATXO

Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa

Lau letratxo elkarren ondoan:

akronimoa da, brabo!

Eta atzean bertso-eskola bat...

parkatu, askoz gehiago!

A, L, B eta ondoan E,

ALBE lez ezagunago,

bertsozale bik sortu zutena,

gaur baino askoz lehenago.

Laurogeian sortu zuten eta,

ez ote dugu arraro

hainbeste urtez jardun izana

bertsogintzaren abaro?

Sekretutxo bat badauka, baina,

irauteak aroz aro,

ALBEn ahotsak ugari dira,

bihotza bakarra dago!



www.albe.eus